



BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN PLEGUA “BILBAO BIZKAIA UR-
PARTZUERGOAREN ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK GARBITZEKO
ZERBITZUA” KONTRATATZEKO



AURKIBIDEA

1. XEDEA

2. ESPAZIO-EREMUA

3. BALDINTZA OROKORRAK

4. GARBIKETA-LANAK ANTOLATZEA

5. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

5.1. Garbiketa-zerbitzu finkoak

5.2. Ez-ohiko garbiketa-zerbitzuak

6. ZERBITZUAREN IRISMENA

7. ZERBITZUA EMATEKO BALIABIDE PROFESIONALAK

8. ZERBITZUAREN BALDINTZA OSAGARRIAK

8.1. Garbiketa-produktuak

8.2. Garbiketa-produktuen ingurumen-baldintzak

8.3. Bestelako ingurumen-baldintzak

9. ZERBITZUAREN BESTELAKO BALDINTZAK

9.1. Altzariak eta informatika-ekipoak garbitzea

9.2. Kristalak, gortinak eta pertsianak garbitzea

9.3. Laborategiak garbitzea

9.4. Bainugelak, dutexak eta komunak garbitzea

9.5. Komuneko papera, xaboia, gel likidoa eta garbigailurako xaboia hornitzea

9.6. Edukiontzi higienikoak

9.7. Materialak eta makinak

9.8. Garbiketa-zerbitzua emateko ordutegia

10. ZERBITZUAREN BALDINTZEN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEA



11. ZERBITZUAREN JARRAIPENA EGITEA

12. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

13. LANGILEEN BITARTEKOEI BURUZKO KONTRATU-BALDINTZAK

13.1. Langileen prestasuna

13.2. Aurreko kontratuko langileak

13.3. Lanen hasierako langileen zerrenda

13.4. Plantilla aldatzea

13.5. Aldagelak eta identifikazioa

13.6. Langileen segurtasuna eta erantzukizun zibila

13.7. Langileen prestakuntza, segurtasuna eta higieena

13.8. Adjudikaziodunaren bestelako obligazioak

14. ADMINISTRAZIOAREN AHALAK: PARTEAK, IKUSKARITZAK ETA KALITATEA

14.1. Eguneroko parteak eta erreklamazio-prozedura

14.2. Kalitatea kontrolatzea

15. ZEHAPENAK

16. ERANSKINA. LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO PROZEDURA

1. XEDEA

Plegu honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (aurrerantzean, BBUP) eraikinak eta instalazioak garbitzeko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak finkatzea. Garbiketa-lanak ingurumena errespetatzen duten metodoekin eta produktuekin egingo dira. Kontratazio honen xede den garbiketa-zerbitzuaren barnean bi (2) prestazio-modalitate hauek emango dira:

- BBUPren eraikinak eta instalazioak garbitzeko zerbitzu finkoak, plegu honetan jasotako baldintzak betez; *Maiztasunen taula, garbiketako zerbitzu finkoak* Eranskineko zerrendan jaso dira.
- BBUPren eraikin eta instalazioetako espazio jakin batzuk garbitzeko ez-ohiko garbiketa-zerbitzuak, salbuespen-kasuetan egiten direnak, plegu honetan jasotako baldintzetan.

Zerbitzu-prestazioa baldintza teknikoen plegu hauetan eta kontratazio honi lotutako Administrazio Klausula Berezien Pleguan (AKBP) zehaztutako eskakizun eta baldintzekin bat etorritik egingo da, eta horietatik sortuko dira alde kontratatzaileen eskubideak eta betebeharrak.

2. ESPAZIO-EREMUA

Kontratu honen espazio-eremuaren barne egongo dira *Maiztasunen taula* Eranskineko zerrendan adierazten diren eraikin eta instalazio guztiak, horietan egiten diren erabilerak gorabehera. Era berean, kontratu honen xede da *Maiztasunen taula* Eranskineko zerrendan dauden leiho eta kristalera guztiak garbitzea.

Kontratazio honetako xede diren zerbitzuak BBUPren instalazio hauetan emango dira:

1. SORTA: SANEAMENDU-INSTALAZIOAK

Sorta horretan gunek hauek daude:



- GALINDOKO HUA:
 - ✓ Sarrerako segurtasun-etxetxoa.
 - ✓ Kontrol-eraikina (E12).
 - ✓ Laborategi-eraikina (E13).
 - ✓ Hirugarren mailako eraikina (E20).
 - ✓ Hobien eraikina (E15).
 - ✓ Ponpaketa-eraikina (E01).
 - ✓ Biologikoen eraikina (E02 eta E03).
 - ✓ Lokatzen eraikina (E08).
 - ✓ Hegoaldeko industria-eraikina- Prebentzio-gunea (E14).
 - ✓ Labeak kontrolatzeko industria-eraikina (E14).
 - ✓ Iparraldeko industria-eraikina - Aktiboen kudeaketa (E14 eranskina).
 - ✓ 3. labea
 - ✓ Bisitarien pabiloia
 - ✓ Zerbitzuen eraikina
- LAMIARANGO HUA
 - ✓ Bulegoak
 - ✓ Zerbitzuak
 - ✓ Eskailerak
 - ✓ Laborategia
 - ✓ Jangela

2. SORTA: HORNIDURA-INSTALAZIOAK

Sorta horretan gunek hauek daude:

- BETELURIKO EUT
 - ✓ Orokorra.
 - ✓ Zaindarien eraikina (etxetxoa) 8.5.
 - ✓ Kontrol-eraikina– 1.1.
 - ✓ Erreaktibo eraikina -2.1.
 - ✓ Azpiestazio elektrikoa – 8.1 + 8.2.
 - ✓ Beteluriko EUT I. fasea.
 - ✓ Beteluriko EUT, II. fasea



- ✓ Ozono eraikina – 5.3 + 5.4 + 5.5 + 5.6 + 5.7 + 5.8.
 - ✓ Laborategia – 5.7.
 - ✓ Lokatzen eraikina – 7.4.
 - ✓ Biltegi berriak eta balbula-gela – 6.5 + 6.6 + 6.7.
 - ✓ Renatoko eta San Bizenteko balbula-gela – 6.3 + 6.4.
- ZEANURI-UNDURRAGAKO PRESA
 - ORDUNTEKO PRESA (urtegia).
 - ETXEBARRIKO PONPAKETA TURBINA
 - BURGOAKO EUT
 - BERMEOKO EUT

3. SORTA: BULEGOAK

- ALBIA ERAIKINA BILBO:
 - ✓ Albia I eraikina.
 - ✓ Albia II eraikina.
 - ✓ Uribitarte kalea 8. zenbakiko eraikina
 - ✓ Bezeroekin egoteko bulegoak
 - ✓ Udal Sareaken bulegoak
- BEZEROEKIN EGOTeko BULEGOA BARAKALDO
- PORTUGALETEKO BULEGOAK
- GERNIKAKO BULEGOAK
- SUKARRIETAKO BULEGOAK

3. BALDINTZA OROKORRAK

Kontrataturako zerbitzu guztiak Baldintza Teknikoen Plegu honetan eta Administrazio Klausulen Pleguan zehaztutakoari zorrozkari erreparaturaz emango dira. Halaber, kontratua legeztatzeke administrazio-agiria eta hautaturako eskaintzaren edukia ere zorrotz beteko dira.

Horregatik, enpresa lizitatuzaileek aurkeztuko duten azterlan teknikoak zehaztuko ditu eskaintzen dituzten prestazio guztiak. Hala, lanak egiteko modua, edukia, irismena eta lan-ekipoen edo -taldeen prestakuntza definituko dituzte, bai langileei dagokienez, bai eta materialei eta bitarteko osagarriei dagokienez ere.

Aurreko guztia exijentzia xeheenekin bat etorri eta gutxienekoak plegu honetan finkatutakoak izango dira.

4. GARBIKETA-LANAK ANTOLATZEA

Enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da bulegoetako elementuak garbitzea *Maiztasunen taula* Eranskinean aipatzen den gutxieneko maiztasunarekin. Kontratatistak lana makineria, bitarteko osagarri eta garbiketa-produktu egokienak erabiliz egingo du, bai parametroen egitura eta materialen ezaugarrien arabera, baita garbitu behar diren altzariak eta elementuak kontuan hartuta ere.

Kontratistaren kontura izango dira mantentze-lanak, lehenengoak konpontzea edo ordezkatzeari barne, une oro erabiltzeko egoera bikainean egon daitezen, eta bigarrenak ordezkatzeari ere bere ardura izango da.

Nolanahi ere, zerbitzuaren antolaketak honako irizpideak izango ditu:

- Desinfektatu behar diren zonetan garbiketa-lanak arreta handiz egingo dira eta goi-mailako desinfekzioa ziurtatzen duten prozedurak eta sistemak aplikatuko dira, bereziki, konketak, komunak eta dutexak.
- Bulegoetan, geletan, halletan eta beste zona komun batzuetan mantentze-garbiketarako egitean, itxura eta kalitatearen egoera egokia ziurtatu behar da, erabiltzaileek erabil ditzaten.
- Instalazioak egokitasunez garbitzeko bitartekoak erabiliko dira beti: garbiketa-produktuz eta tresnez betetako gurdiak, makinak, eskailerak, aldarmioak eta abar.
- Bulegoetarako, geletarako, halletarako, korridoreetarako eta beste zona komun batzuetarako materiala erabiliko da eta material ezberdina konketa, komun eta dutexetarako. Zapiak desberdinak izango dira kolorearen kodea erabiliz identifikatu eta modu batean edo bestean erabiltzeko.
- Lanaldi bakoitzaren ondoren, garbiketa-material guztia behar bezala garbituko da. Erabilitako tresnak urarekin eta detergentearekin sakon garbituko dira.
- Ebakuazio-bide bezala hartutako ateez eta korridoreek ez dute oztoporik (garbiketa-tresnak eta materialak) izango.

5. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

5.1. Garbiketa-zerbitzu finkoak

Garbiketa-zerbitzu finkoaren barnean egongo dira ohiko garbiketa-lan guztiak. Klausula honetan xedatutakoarekin bat etorriz, lan horiek egiteko programazioa eta maiztasuna ezarri dira.

Zehazki, *Maiztasunen taula* Eranskinean programatuta dauden lanak egingo dira maiztasunez.

5.2. Ez-ohiko garbiketa-zerbitzuak

Ez-ohikoak diren inguruabarrak eta/edo gertaerak direla-eta, BBUPk adjudikaziodunari eskatu ahalko dio garbiketako ez-ohiko zerbitzuak egin ditzala plegu honetako 2. klausulan deskribatutako instalazioen bateko espazioak egoki uzteko.

Lan horiek plegu honetan garbiketako zerbitzu finko gisa definituta dauden errutinetatik kanpo geratuko dira.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eskainitako garbiketako ordu bakoitzeko unitate-prezioa ez-ohiko garbiketa-lanetarako aplikatuko da.

6. ZERBITZUAREN IRISMENA

BBUPk kalkulatu du kontratuko zerbitzua zuzen emateko gutxieneko ordu-kopurua urtean 42.542,31 izango dela.

Kontratazio honetako xede den zerbitzuak prestazio-estaldura hau bermatu beharko du:

1. SORTA: SANEAMENDU-INSTALAZIOAK Gutxieneko ordu-estimazioa: 14.402.05 ordu/urtean.

- Galindoko HUA:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 13741,96 ordu.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
 - ✓ Estaldura astelehenetik igandera (jaiegunak barne) zerbitzu-eraikinen aldageletan.
- Lamiarango HUA:



- ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 660,09 ordu urtean
- ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.

2. SORTA: HORNIDURA-INSTALAZIOAK Gutxieneko ordu-estimazioa: 15.178,60 ordu/urtean.

- Beteluriko EUA:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 13.867,64.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
 - ✓ Urtean hamar garbiketa osagarri egiteko prestasuna
- Zeanuri-Undurraga presa:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 198,13.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Ordunteko presa (urtegia):
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 198,13.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Etxebarriko turbina-ponpaketa:
 - ✓ Eskatzen denean.
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 48,00.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Burgoako EUT (Gernika):
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 668,57 ordu urtean
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Bermeoko EUT:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 198,13.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.

3. SORTA: BULEGOAK Gutxieneko ordu-estimazioa: 12.961,66 ordu/urtean.

- Albia eraikina. Bilbo:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 11.569,60.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Bezeroekin egoteko bulegoak Barakaldo:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 297,11.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Portugaleteko bulegoak:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 104,28.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Gernikako bulegoak:
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 742,96.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.
- Sukarrietako bulegoak:
- Behin-behinean itxita. Garbiketa-kontratuaren aldian aktibatuko da.
 - ✓ Urteko gutxieneko ordu-estimazioa: 247,71.
 - ✓ Zerbitzu-estaldura astelehenetik ostiralera.

Hala eta guztiz ere, adjudikaziodunari entzun eta gero, zerbitzu-estaldura eguneratzeko aukera izango du BBUPk, zerbitzu-beharrek hala eskatzen baldin badute.

Ekaina eta iraila bitartean garbiketa-lanak egiteko ordutegiak lanaldi jarraitua duten langileen ordutegira moldatuko dira.

7. ZERBITZUA EMATEKO BALIABIDE PROFESIONALAK

Adjudikaziodunak zerbitzua emateko izendatzen dituen langileak adjudikaziodunaren (kontratista) mende egongo dira guztiz eta berak baino ez ditu izango enplegatzaile gisa dagozkion eskubideak eta betebeharrak.

Ondorio horietarako, enpresa kontratistak obligazio hauek hartuko ditu bere gain:

- Esklusiboki adjudikaziodunari (kontratistari) dagokio langileak hautatzea, baina plegu honen hurrengo klausulan eskatzen diren titulazioaren eta esperientziaren baldintzak bete beharko dituzte. Kontratua gauzatuko duen lantaldeari atxikiko zaizkio, alde batera utzi gabe BBUPk baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
- Adjudikaziodunak (kontratistak) lantaldean egonkortasuna egon dadin saiatuko da, eta haren osaeran dauden aldaketak zehatzak eta justifikatutako arrazoiengatik izan daitezela, zerbitzuak behar bezala funtziona dezan (exijentzia hori justifikatzen duten arrazoiak daudenean), eta BBUPri horien guztien berri emango dio une oro.
- Adjudikaziodunak (kontratistak) bere gain hartzen du enpresariak berezko duen zuzendaritza-ahalmena, eta bere betebeharra izango da kontratuko lanak egiteko osatutako lantaldeko langileengan ahalmen hori benetan gauzatzea modu eraginkorrean eta jarraituan.

Bereziki hauek bereganatuko ditu: soldatak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta oporrak ematea; ordezkoak jartzea bajak edo lanera ez agertzeak (oporraldiak, lizentziak, etab.) izaten badira; Gizarte Segurantzaren arloko lege-betebeharrak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea bidezkoa denean; laneko arriskuen prebentzioaren arloko lege-betebeharrak, diziplina-ahala egikaritzea eta langileak eta enplegatzaileak izenpeturiko kontratuko harremanen ondoriozko eskubide eta betebeharrak guztiak.

- Adjudikaziodunak (kontratistak) gutxienez koordinatzaile edo arduradun bat izendatu beharko du langileen plantillatik eta bere obligazioen artean egongo dira honako hauek:
 - ✓ Adjudikaziodunaren (kontratista) bitartekari gisa jardutea BBUPn, enpresa kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta BBUPren arteko komunikazioa bideratuz, kontratua betetzeari dagokion guztian.
 - ✓ Kontratua betetzeko langileen artean lana banatzea eta langileei aginduak eta lanerako jarraibideak ematea kontratatutako zerbitzu-prestazioarekin lotuta.



- ✓ Gainbegiratzea lantaldeak zuzen betetzen dituela aginduta dituen funtzioak eta langile horiek lantokira joaten direla kontrolatzea.
- ✓ Kontratuari atxikitako langileen oporraldi-araubidea antolatzea, bete beharreko ordu-kopurua betetzeko ordezkapenak barne. Horretarako, kontratista BBUPrekin koordinatu beharko da, zerbitzuaren funtzionamendu ona ez aldatzeko.
- ✓ BBUPri jakinaraztea kontratura atxikitako lantaldearen aldaketa behin-behinekoak edo behin betikoak.
- ✓ Bermatzea kontratazio honetako zerbitzuari atxikita daudenak BBUPren instalazio eta bulegoetan daudenean, bete egiten dituztela BBUPren segurtasun-arauak eta zerbitzu-adjudikaziodunaren erakundeko langile gisa identifikatzen dituzten bereizgarriak dituztela.
- ✓ Adjudikaziodunak (kontratatistak) klausula honen arabera bere gain hartutako obligazioak urratzeagatik BBUPk enpresa kontratistari zenbateko solidarioak ordaintzeko zigorra jasotzen baldin badu, kontratistari egotziko zaizkio zenbateko horiek. Horren ondorioetarako, BBUPk eskubidea izango du ekintza administratiboak edo judizialak egiteko, zuzenak eta egokiak, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

8. ZERBITZUAREN ESKAKIZUN OSAGARRIAK

8.1. Garbiketa-produktuak

Garbiketa-produktu guztiak, hala nola aparrak, xaboiak, argizariak, detergenteak, erratzak, eskuilak, gamuzak, kristal-garbigarriak eta antzekoak, zerbitzu-adjudikaziodunak emango ditu eta, horregatik, eskaintzan jasota egon beharko dira.

Enpresa adjudikaziodunak makinak, bitarteko osagarriak, tresnak eta garbiketa-produktuak izan beharko ditu plegu honetako lan guztiak gauzatzeko. Bere kargura izango da horiek guztiak eskuratzea, gordetzea, konpontzea eta ordezkatzeta.

Garbiketa-produktuak leku egokietan gordeko dira eta produktu kimikoak isuriz gero, horiek biltzeko materialak eskuragarri izango dira.

Produktuen ontzi guztiak lokal guztietara ongi itxita iritsiko dira eta bermatuko da aurretik ez direla manipulatu. Enpresa adjudikaziodunak zuzen gordetzeko eta, hala dagokionean, deuseztatzeko ardura izango du.

Adjudikaziodunak etengabe zerbitzuak eskaintzeko materiala eskura izan beharko du. Beraz, bidezkoztat jotzen dituen erreserba-ekipoen hornituko da. Ildo horri jarraikiz, eskaintzan proposatutako erreserba-plana adieraziko du.

Garbiketa-zapiak eta mopak eta lanbasak mikrozuntzekoak izango dira, hondakin gutxiago sortzeko eta ur nahiz bestelako produktu kimiko gutxiago kontsumitzeko.

Zabor-poltsak polietilenoak edo polipropilenoak izan beharko dira (ezingo dira erabili plastiko halogenatuzko poltsak) eta gutxienez % 80n birziklatutako plastikoarekin fabrikatuak izan beharko dira. Gainera, konposta egiteko edukiontzietara bota ahal diren hondakin organikoak sortuz gero, poltsa konpostagarriak erabili dira, UNE-EN 13432 araua betez.

Zaborra biltzeko poltsetarako kolore-kode bat erabili da eta kolore horren bitartez hondakin-mota identifikatu ahal da. Modu horretan, errazagoa izango da hondakinak beren tipologiaren arabera bereiztea.

Ahalik eta poltsa gutxien erabiltzeko, poltsak guztiz beteta daudenean kenduko dira. Horretarako, edukiontzi bakoitzeko edukia behar beste beteta dauden poltsetara botako da eta azkenean kendu egingo dira.

Zabor-poltsak pisatu egingo dira eta hilabete bukaeran hondakin-frakzio bakoitzaren zenbatekoa jakinaraziko da.

Zabor-poltsak bota baino lehen itxi egingo dira. Ez dira zapalduko eta behar bezala manipulatu dira, isurketa likidorik edo objektu zorrotzik badago. Paperontzian ondo eutsitako poltsa berria jarriko da. Zabor-poltsa guztiak hurbilen dagoen edukiontzira botako dira. Zabor-poltsak hornitzea adjudikaziodunaren kontura izango da.

Hiriko hondakin solidoak zuzen sailkatuko dira birziklatzeko eta dagokien edukiontzietan (papera eta kartoia, beira, organikoa, plastikoak eta ontziak) utziko dira.

Garbiketaren ondorioz sortutako produktu guztiak egunero erretiratu dira, lanak amaitzen direnean.

Adjudikaziodunak egungo gaikako bilketa-sistema mantenduko du eta hondakinak dagozkion edukiontzietan utziko ditu. Saneamendu- eta hornidura-instalazioetan edukiontzia edo eskuragarri dauden eta/edo aurrez ezarritako bilketa-puntuak erabiliko dira. Hondakinak itxitako poltsetan utziko dira. Inolaz ere ez dira botako hondakin solteak edo irekitako poltsak edukiontzi horietara. Edukiontzi propiorik ez duten instalazioetan udalarenak erabiliko dira.

Zerbitzuan sortutako hondakinei dagokienez (papera, trpuak, produktuen ontziak, etab.), adjudikazioduna hondakin gutxiago sortzen saiatuko da eta zuzen kudeatuko ditu. Hondakinak hiri-hondakinetan onartu badaitezke, adjudikaziodunak sortutako hondakinak bereiziko ditu eta udalaren edukiontzietara edo baliokideetara botako ditu saneamendu- eta hornidura-instalazioen kasuan. Hondakinak arriskutsuak badira (adibidez, arriskutsu gisa sailkatutako garbiketa-produktuen ontziak), kudeatzaile baimendun batek kudeatu beharko ditu. Hondakin horiek inolaz ere ez dira utziko hornidura- eta saneamendu-instalazioetan ontziak biltzeko jarrita dauden edukiontzietan.

Horretarako, hondakinak jaso eta kudeatzeko prozedura definitu beharko da eta hondakin arriskutsuak zein baimendun kudeatzaileri entregatuko zaizkion adieraziko da, tratamendu-kontratua aurkeztuta.

Zainduko da eskailera-mailetan erabilutako produktuek ez dutela irristatzerik sorrarazten eta garbiketa-produktuak onuragarriak direla elektrizitate estatikorako.

Ingurumena eta garbitzaileen eta instalazioetako langileen osasuna errespetatzeko, garbiketa-produktuek irizpide hauek bete beharko dituzte:

- Orokorrean debekatuta dago produktu desinfektatzaileak (lixiba, besteak beste) erabiltzea gainazalak eta zoruak garbitzeko, salbuetsiz komunak eta zuzen zehazten diren gainerako gainazalak.
- Ahal den heinean ekidin egingo dira zuzenean garbiketarako ez diren substantziak edo osagaiak dituzten produktuak, hala nola koloratzaileak, perfumeak edo produktuetako desinfektatzaileak.
- Debekatuta dago spray-produktuak erabiltzea (gas konprimatua dutenak edo aerosolak dituztenak).
- Ontzi guztiak zuzen etiketatuta egongo dira hurrengo klausuletan definitzen den moduan: produktuaren izena, produktuak izan ditzakeen konposatu arriskutsuen piktograma eta erabilera-jarraibideak eta dosiak.
- Garbiketa-produktuen ontzi guztiek dosifikatzeko eta diluitzeko gailuak izan beharko dituzte, beharrezko kantitateak soilik erabiltzeko.
- Eskaintzaileak zerbitzuan zehar erabiliko dituen produktuen zerrenda aurkeztu beharko du. Bakoitzaren kasuan, funtzioa edo aplikazio-gainazala (kristal-garbitzailea, moketetarako, etab),

erabileraren dosifikazioa eta 255/2003 Errege Dekretuaren eta hurrengo zuzenketan arabera segurtasun-fitxa zehaztuko ditu.

8.2. Garbiketa-produktuen ingurumen-baldintzak

Aurreko puntuan xedatutakoarekin bat etorritik, kontratazio honetako garbiketa-produktuek baldintza hauek beteko dituzte:

- ✓ Dosifikazio-gailuak izango dituzte.
- ✓ Ez da garbiketa-produktuen aniztasun handirik egongo.
- ✓ Ingurumena errespetatuko dute.

Horretarako, produktuak egokiak izango dira, erreferentzia hauen arabera, CLP arautegiko zerrendan arrisku-adierazle hauek ez badituzte:

"H300, H301, H304, H310, H311, H317, H330, H331, H334, H340, H341, H350, H350i, H351, H360F, H360D, H360FD, H360Fd, H360Df, H361f, H361d, H361fd, H362, H370, H371, H372, H373, H400, H410, H411, H412, H413, H420 eta EUH070".

Produktuen jarraipena eta beren egokitasuna errazteko, BBUPk eskubidea izango du adjudikaziodunari eskatzeko erabiliko dituen produktuen memoria bat eta eskatu ahal izango dio, baita ere, ziurtatu dezala (sei hilean edo urtean behin) eskaintzan adierazi dituen produktu horiek erabiltzen dituela.

8.3. Bestelako ingurumen-baldintzak

Adjudikaziodunak, zerbitzu-prestazioan zehar, aplikatzekoak diren BBUPren barne-prozedurak eta indarreko legeria errespetatuko ditu ingurumenari, osasunari eta hondakinen tratamenduari dagokienez, kasu bakoitzean eman beharreko zerbitzuen ezaugarriei eta zehaztasunei erreparatuz.

Halaber, kontratistak modu eskusiboan erantzuniko die bere ez-betetzeek BBUPri sortu ahal izango dizkien administrazio-zehapenei eta edozein motatako kalte-galerei.

9. ZERBITZUAREN BESTELAKO BALDINTZAK

9.1. Altzariak eta informatika-ekipoak garbitzea

Altzari eta osagarri guztiak kontu handiz tratatu eta zainduko dira. Ildo horri jarraikiz, garbiketa-makina eta -produktuekin orbanak, kolpeak eta marruskadurak egitea saihestuko da.

Pororik gabeko egurrezko gainazaletan (gainazal plastifikatu edo lakatua) zapi bat erabiliko da eta detergente anionikoarekin eta urarekin egindako diluzio baxua erabiliko da garbitzeko. Ondoren, argizari likidoaren edozein produktu aplikatuko da, argizari naturalarekin, landare-argizariarekin edo bitarteko hidrokarburoetatik datorrenarekin prestatuta badago.

Egurrezko gainazal porodunetan alde zurretik zapi bustiarekin eta ia lehorrekin hautsa kenduko da. Ondoren, argizaria oinarri bezala duen prestakina emango da.

Ez dira produktu koipetsuak edo argizariez hornitutakoak (ohiko spraya) erabiliko, gainazal sintetikoetarako detergente leunak baizik. Zapi batekin kontu handiz garbituko dira eta kolpeak nahiz kalteak saihestuko dira, tokiz aldatuz gero.

Informatika-ekipoen kanpoaldea horien ezaugarriekin bat datozen tresna eta produktuekin garbituko da.

9,2. Kristalak, gortinak eta pertsianak garbitzea

Kristalak *Maiztasunen taula* Eranskinean jasotako maiztasunarekin garbituko dira gutxienez, eta detergente neutroak edo kristal-garbitzaileak erabiliko dira. Beharrezko tresnak erabiliko dira, gainazalak maiz mantentzeko badira: gomazko ezpainak, zabalgarriak, eskailerak, etab.

Gortinak gutxienez urtean behin garbituko dira, udako oporraldian.

Irisgarriak diren tolesteko pertsianetan aldian-aldian hautsa kenduko da. Gutxienez urtean behin pertsianak garbituko dira detergente neutroarekin eta presiozko edo lurrunezko makinak erabiliko dira, kasuen arabera.

9,3. Laborategiak garbitzea

Laborategietan, ohiko garbiketa-zerbitzuez gain, laborategiko materialaren garbiketa espezializatua egingo da, termodesinfektatzaileak erabilita eta ekipamendu espezifikoak ere garbituko dira (erauzketako beira-arakak edo hozkailuak eta izozkailuak), baita ere laginak garraiatzeko altzairu-orgak, eta termodesinfektatzaileak mantenduko dira.

Horregatik, laborategietako langileek egiten dituzten lan batzuk espezializatuak direnez, beharrezkoa izango da langile berriek prestakuntza teorikoa eta praktikoa egitea, gutxienez hogeitau ordukoa.

Laborategietan ordezkapenak egingo dituzten langileen zerrenda eta beren prestakuntza-plana bat etorriko dira gauzatuko dituzten eginkizun espezializatuekin. Laborategiak garbitzeko ez-ohiko lanak egin behar direnean ez-ohiko obrak, gertakariak edo termodesinfektatzaileetan matxurak gertatzen direnean, bitarteko osagarriak esleituko dira aipatutako zerbitzu osagarri horiek egiteko.

Horretaz gain, programatuta beharrezkoa da ekipamendu espezifiko jakin bat garbitzea (erauzteko beira-arasak eta izozkailuak). Horretarako, bitarteko osagarriak eman beharko dira lan horiek egiteko.

Enpresa adjudikazioduneko langileek bereziki zainduko dute zerbitzu-prestazioan zehar ez direla BBUPren instalazioetara sartzen kanpoko pertsonak eta argi badago alderdi horretan zabarkeriaz jokatu dela, dagozkien erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkie.

Laborategiko garbitzaileek egiaztapeneko erakunde nazionalak (ENAC) eskatzen duen konfidentzialtasun-agiria sinatu beharko dute.

9,4. Bainugelak, dutexak eta komunak garbitzea

Bereziki garbituko dira komunak, dutexak, konketak, bainugelak, aldagelak eta abar. Horretarako, kontu handiz lan egingo da, mineralek sortutako zikintasuna kentzeko produktu egokiak erabiliz, besteak beste, lixiba, kloratutako produktuak eta noizean behin detergenteak.

Komunak garbitzeko orduan, edozein ertz eta bazterretatik zikinkeria ateratzeko produktu likidoak erabil daitezke. Barrutik eta kanpotik garbituko dira eta sodio hipokloritoarekin desinfektatuko dira. Bainugelako gainerako osagarriak (ispiluak, heldulekuak, txorrotak, etab.) detergente neutroekin garbituko dira eta behar bezala lehortuko dira zapi lehorrekin.

Lixiba eta bestelako desinfektatzaileak betiere kontzentrazio egokietan eta adierazitakoetan erabiliko dira eta dosi-neurriez baliatuko da.

9,5. Komuneko papera, xaboia, gel likidoa eta garbigailurako xaboia hornitzea

Enpresa adjudikaziodunak ziurtatuko du eraikin eta instalazioetako zerbitzu guztiak zuzen emateko komuneko paper nahikoa hornitzen duela eta kontratua indarrean dagoen bitartean etengabe jarriko du.

Garbiketa-zerbitzuan berariaz sartuta dago egunero egiaztatzea eta jartzea komuneko papera, xaboia eta eskuak lehortzeko papera eraikinetako komun guztietan eta sekula ere falta ez direla ziurtatuko da. Papera geruza bikoitzekoa izango da. Material horien hornidura eta aire-freskagarria adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Xaboi likidoa edo gela, kontratistak hornitzeaz gain, gaur egun jarrita dauden eta etorkizunean jarri ahalko diren xaboi-banagailuetan botako ditu.

Komuneko papera eta eskuak lehortzeko papera % 100 birziklatuak izango dira eta ez dute klororik izango (TCF).

Eskainitako eskuetarako xaboiak ez du izan behar koloratzailerik, lurrinik ezta agente desinfektatzailerik.

Garbigailuetarako xaboia Burgoa EUTn (Gernika) eta Bermeoko EUTn behar dira.

9,6. Edukiontzi higienikoak

Enpresa adjudikaziodunak emakumeen komunitateko edukiontzi higienikoak jartzea kontuan hartuko du *Maiztasunen taula* Eranskinean xehatutako bulegoetan eta instalazioetan eta gaur egun jarrita daudenak mantenduko ditu.

Enpresa adjudikaziodunak gailuak instalatzea, desinstalatzea eta mantentzea jasoko du.

Edukiontzi higienikoak instalatzen eta desinstalatzen direnean, maila gorenean bermatuko dira instalazioen garbitasuna eta ordena eta bermatuko da gune horretan ez dagoela hondarrik.

Ahal den heinean, edukiontziak lotzeko sistema batekin jarriko dira lekua kaltetu gabe (adibidez, zinta itsaskorrenekin). Hala, ez da zulorik egingo hormetan eta estetika zainduko da. Edukiontziak kentzen direnean, bermatuko da baita ere jartzeko hondar guztiak kentzen direla (kolak, silikonak...).

Edukiontzien gutxienez baldintza hauek beteko dituzte:

- Edukiontzi higienikoak: gailu horrek higienikoki ireki ahal izateko mekanismoa izango du (pedala edo *non-touch* sistemaren bat) Modu berean, sistema horrek bermatuko du gailua ongi itxita geratzen dela erabiltzen ez denean. Adjudikaziodunak edukiontzi osoa (kanpoaldea eta barnealdea) garbitu eta higienizatzen dela bermatuko du.
- Bakterioestatikoak: produktu bakterioestatikoa izango du (giro-kargarik gabe).
- Alfonbra higienikoak: zikinkeria-aren aurkako alfonbra higienikoak, irristatzeen aurkako oinarriarekin eta deformatu ezin diren indartutako ertzekin. Tonu ilunak izango dituzte, adibidez, grisa, antrazita, urdina edo beltza, bakoitza jarriko den lekua arabera. Mantentze-lanetan garbiketak eta ordezkatzeko jarraituak egingo dira. Logotipoa duten alfonbra pertsonalizatuak prestatzea barne egongo da.



- Komunontzirako higienizatzaila: xaboi bakterizida banatzeko gailua eta komunontziaren estalkia desinfektatzea eta birkargatzea.
- Komunontziaren estalkia: Gailua bera mantentzeaz gain, adjudikaziodunak biribilkiak, hortzak eta bateriak entregatuko ditu eta horiek mantenduko ditu eta, hala eskatzen zaionean, berehala gauzatuko ditu lan horiek.

Beharrezkoa denean, eta kontratuaren arduradunak hala eskatuta, adjudikaziodunak 5, 15, 30 eta 50 litroko edukiera duten edukiontziak eta paperontzi metalikoak hornituko ditu, kolore ezberdinetakoak, bulegoetan sortutako hondakinak bereizteko. 15 eta 30 litrokoek pedalarekin irekitzeko estalkia izango dute eta 50 litrokoak estalki kulunkaria edo bakarrik ixteko mekanismoa izango du.

9,7. Materialak eta makinak

Adjudikaziodunaren kontura izango da garbiketa-tresna eta -material guztiak nahiz makineria hornitzea, dagozkion zerbitzuak emateko. Bitarteko horiek guztiak kontratu honen xede diren zerbitzuetarako bakarrik erabiliko dira. Hau da, ezingo dira beste kasu batzuetan erabili, salbu eta kontratu-arduradunak berariazko aginduak ematea.

Xurgatzaileak edo leuntzaileak dituzten garbiketa-ekipoek ez dute 70 dB(A)-ko zaratak gaitutuko.

Zerbitzua eskaintzeko beharrezko ura eta energia doan emango ditu BBUPk.

Kristalak garbitzeko ainguraketak, segurtasun-sokak edo antzekoak behar diren eraikinetan, BBUPk jarriko ditu. Babes-elementu horiek ez daudenean edo horiek ezin direnean instalatu, plataforma igotzaileak edo bestelako sistemak beharko dira lan horiek aplikatzekoak diren segurtasun-arauak errespetatuz egiteko eta adjudikaziodunaren kontura izango dira lanak egiteko makinak eta materialak.

9,8. Garbiketa-zerbitzua emateko ordutegia

Orokorrean, garbiketa-lan guztiak eraikineko jarduera nagusia bukatzen denetik 22:00 bitartean egingo dira: hau da, garbiketa-lanak ez dira BBUPren langileen jarduerarekin bateratuko.

Eraikin edo instalazio berezietan edo ohikoa ez den ordutegia dutenetan, garbiketa-lanak eraikineko ordutegian enbarazu gutxien sortzen duten egunetan gauzatuko dira.

10. ZERBITZUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEA

Aurretik azaldutakoaz gain, adjudikaziodunak zuzen bete beharko ditu baldintza hauek:

- Kontratuaren lehenengo hilabeteen zehar prestazio-errutinen memoria bat idatziko du eta instalazio eta eraikin guztietan egingo diren garbiketa-lan guztiak adieraziko ditu bertan.
- Eguneko 24 orduetan martxan egongo den larrialdietarako telefono-zenbaki aktiboa izatea, BBUPk izan ditzakeen beharretarako.
- Eskatutako zerbitzua eskuragarri izatea, baldin eta gutxienez 24 ordu aurretik eskatzen bada.
- Prestazioan gerta daitezkeen zabarkeriengatik kalteei erantzutea, besteak beste, hirugarrenek egin ditzaketen erreklamazio posibleak, erakunde adjudikaziodunaren jardueran oinarrituta.
- Adjudikaziodunak zerbitzua emateko izendatutako langile-taldeak uniforme bakarra izango du eta prestazioan zehar adjudikaziodunaren langile gisa identifikatuko dira uniforme horrekin. Kostuak adjudikaziodunaren kargura izango dira.
- Edonola ere, langileen jarduketak eta/edo ezagutzak egokiak ez direnean edo axolagabeak badira edo nahikoak ez badira zerbitzu honetako lanak egiteko, adjudikaziodunak berehala ordezkatzuko ditu.
- BBUPk zorrozki kontrolatzen ditu instalazioen zaintza- eta segurtasun-obligazio guztiak. Adjudikaziodunaren langileek une oro errespetatuko dituzte segurtasun-arauak.
- Adjudikaziodunak, edonola ere, bermatuko du lan- eta osasun-arriskuak prebenitzeko arauak onartzen, betetzen, jarraitzen eta kontrolatzen direla, BBUPk onetsitakoak bere instalazio eta eraikinetan ematen diren lanetarako.
- Horretarako beharrezkoak diren elementuak (arropa, oinetakoak, segurtasun-elementuak, prestakuntza...) oso-osorik emango ditu enpresa adjudikaziodunak eta aurkeztutako eskaintzan barne dagoela ulertuko da.
- Adjudikaziodunak bermatu beharko du zerbitzuan ingurumenarekiko inpaktua murrizteko praktikak betetzen direla (ur gutxiago kontsumitzea, soilik beharrezkoak diren argiak piztea eta lana bukatzean itzaltzea eta hondakinak zuzen jasotzea, beste batzuen artean).

11. ZERBITZUAREN JARRAIPENA EGITEA

BBUPren kontratu-arduradunak, hala dagokionean, berehala jasoko du zerbitzuan gertatutako intzidentzien berri, baldin eta prestazioa zuzen emateko eragin larriak sortzen badira.

Hilean behin adjudikaziodunak BBUPren kontratuaren arduradunari hilabete horretan egindako lanen, jarduketan eta gertatutako intzidentzien txostena entregatuko dio. Bertan, berariaz egiaztatuta egongo dira zentro bakoitzean gauzatutako garbiketa-orduak.

Adjudikaziodunak mekanismoak ezarriko ditu frogagiriak egon daitezen ezarritako ordutegia bete denaren inguruan (ordutegi-kontrola).

12. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

Adjudikaziodunak, legez dagozkionez gain, honako eskubide hauek izango ditu:

- BBUPren kargura, eraikinek dituzten uraren, argiaren eta energiaren (indarra) hornidurak jasoko ditu, zerbitzuak gauzatzeko beharrezkoak diren kantitateetan.
- Bere borondatearekin zerikusirik ez duen arrazoiarengatik, arestian aipatu den edozein elementuren hornidurarik ez duelako adjudikaziodunak ezin baditu zerbitzuak egin, erantzukizunez salbuetsiko zaio, ez baldin bada plangintza desagokitzat edo funtzioen uztetzat eta/edo erantzukizun uztetzat jotzen.
- Agiri honen xedapenen arabera, dagokion hileko zenbatekoa jasoko du legeak aipatutako epeetan. Ondorio horietarako, alderdi hauek aintzat hartuko dira:
 - ✓ Ohiko garbiketa-lanak hilean behin ordainduko dira, aurretiaz fakturak onetsi eta gero. Zenbatekoa zerbitzuaren urteko prezioaren hamabirena izango da.
 - ✓ “Ez-ohiko garbiketa-lanen” prezioa kalkulatzeko garbituko den azalerari (metro karratuetan neurtuta) kontratuaren adjudikaziodunak eskainitako unitate-prezioa biderkatuko zaio. Jaiegunetan ez-ohiko garbiketak egitea eskatuz gero, prezioa/orduko % 30 gehituko da.

13. LANGILEEN BITARTEKOEI BURUZKO KONTRATU-BALDINTZAK

13,1. Langileen prestasuna

Zerbitzuaren adjudikaziodunak beharrezko langileak izango ditu, bai kopuruari, bai prestakuntzari dagokionez, Baldintzen Agiri honetan zehaztutako lanak egiteko.

Egungo plantilla gutxieneko plantilla izango da.

Langile subrogatuaren kontratuakiko ordu-kopurua handiagoa izatea ez da inolaz ere arrazoiak izango eskatutako ordu-kopurua murriztu edo ez betetzeko.

Lanaren arrazionalizazio- eta optimizazio-arrazoiak kontuan hartuz, enpresako langile batek lanaldi osoa zentro batean egin ezin duenean, joan-etorriek sortutako kalteak gutxitzeko, enpresa adjudikaziodunak ahalgina egingo du langileak beraien artean hurbil dauden zentroetan lan egin dezan.

Gainera, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, enpresa adjudikaziodunak langileen behin-behinekotasuna ahalik eta gutxienera murriztuko du, behin-behinekotasuna bakarrik inguruabarrek hala justifikatzen dutenean gertatuko delarik.

BBUPk enpresa adjudikazioduneko langileekin ez du inolako harreman juridiko, laneko edo beste era batekorik izango kontratuak iraun bitartean eta hura amaitzen denean.

Zerbitzuaren adjudikaziodunak ezingo du aitzakia bezala jarri langilerik ez duela eskainitako zerbitzuak ala BBUPk berariaz eskatzen dizkionak eteteko edo atzeratzeko ez-ohiko zerbitzuen kasuan, betiere, eskaera nahikoa aurrerapenez (48 ordu) egiten bada. Hala, une oro gauzatzeko langileak izango ditu.

13,2. Aurreko kontratuko langileak

Bizkaiko eraikinen eta lokalen garbiketaren sektorerako indarreko hitzarmen kolektiboak eta SPKLk subrogatu daitezkeen lanpostuen zerrendaren eranskinean xedatutakoa betez, gaur egun kontrataren bitartez garbiketa-zerbitzuak eskaintzen ari diren langileen zerrenda atxiki da. Aipatu zerrendan SPKLren 130. artikuluan aipatzen den informazio xehatua dago.

13,3. Lanen hasierako langileen zerrenda

Enpresa adjudikaziodunak, kontratua sinatu eta hamabost egunen buruan, lanen hasiera-akta baino lehen, zentroko langileen zerrenda aurkeztuko du langile bakoitzaren hurrengo datuekin: izena, NANA, kategoria, antzintasuna eta kontratu-mota.

13.4. Plantilla aldatzea

Kontratuaren indarraldian, kontratua hasi zen langile zerrendarekiko erretiroagatik, heriotzarengatik, borondatezko bajarengatik, kaleratzeagatik, aldi baterako ezintasunagatik, etengabeko ezintasunagatik, oporrenagatik, lizentziengatik, baimenengatik eta abarrengatik aldaketaren bat egon behar badu, edo zerbitzuaren beharrengatik aldaketaren bat badago, adjudikaziodunak BBUPren kontratu-arduradunari idatziz jakinaraziko dio.

Jakinarazpenean, gainera, ordezkatzeko jardungo dutenen datuak, aurreko atalean adierazitakoak, sartuko dira.

Ordezkapen oro, gutxienez, prestakuntza bereko langilearekin eta horrek zuen ordutegian egingo da.

13.5. Arropak eta identifikazioa

Zerbitzuetako langile guztiek uniformeak jantzi beharko dute. Langileen jantzien kalitatea eta kantitatea zehazteko, une oro hitzarmen kolektiboan eta laneko segurtasun eta higieneari buruzko araudian erabakitakoari erreparatuko zaio.

Langile oro identifikazio-txartelaren bitartez ezin hobeki identifikatuta egongo da; horretarako, BBUPren instalazioetan dirauen bitartean beti ikusten den tokian eramango du, zerbitzuen segurtasunerako.

Txartelak enpresa adjudikaziodunaren anagrama eta langilearen identifikazioa izango ditu. Enpresa adjudikaziodunak langile guztiei emango die txartela.

Adjudikaziodunaren ardura izango da arropa garbia ez egotea, begiramena galtzea edo uniformeak ez izatea.

13.6. Langileen segurtasuna eta erantzukizun zibila

Enpresa adjudikaziodunak bere kargura dituen langileak behar bezala aseguratuak izango ditu, laneko eta gizarte-segurantzako zuzenbideari buruzko indarreko araudiarekin bat etorriz.

Bestalde, erantzukizun zibilaren aseguru-polizak sinatu behar ditu, lanak egitean hirugarrenekiko eta BBUPrekiko kalteak ordaintzeko.

Enpresa adjudikaziodunak honakoak emango dizkie langileei:

- Banakako eta taldeko babes ekipoak emango dizkie, jardueraren ondoriozko arriskuen aurrean langileen segurtasuna lortzeko.

Aurreko guztia, kontratu hasieran aurkeztu beharko duen prebentzio-planarekin bat etorritik eta “Lan-arriskuak prebenitzeko prozedura” eranskinean ezarritakoa betez.

13.7. Langileen prestakuntza, segurtasuna eta higiena

Adjudikaziodunak lanean segurtasunaren eta osasunaren arloan indarreko xedapenak zorrozki bete beharko ditu.

Lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarreko araudiari erreparatuko zaio.

Era berean, adjudikaziodunaren kontura izango da kontratuaren zerbitzura dauden langileak etengabe eguneratzeko beharrezko prestakuntza-jarduerak antolatzea.

Kontratua formalizatu eta gero, adjudikaziodunak kontratu honetarako eraikinen eta bulegoen garbiketa-lanei dagozkien lan-arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza aurkeztuko ditu, *Lan-arriskuak prebenitzeko prozedura* eranskinean deskribatzen den moduan.

Adjudikaziodunak kontratuaren xede den jardueraren arriskuak jakinaraziko ditu, BBUPren langileei eragiteko arriskua egonez gero.

Kontratua hasi aurretik, adjudikaziodunak solaskidearen berri emango du. Lanaren segurtasunari eta osasunari buruzko jarduerak koordinatzeko, bera arituko da BBUPekin segurtasun- eta osasun-solaskidearen funtzioetan.

Lan-arriskuak prebenitzeko prozedura eranskineko baldintzez gain, kontratuaren xede diren jarduerak egiterako orduan, lan-baldintzei dagokienez, BBUPk egokitzen jotzen dituen egiaztapenak egiteko eskubidea gordetzen du, eta lanak ikuskatu ahalko ditu eta kontratatari indarreko lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia egiaztatzen duen dokumentazioa eska diezaioke.

13.8. Adjudikaziodunaren bestelako obligazioak

Ordainsarien, gizarte-segurantzaren, lan-istripuen, lan-puntualtasunaren, prestakuntzaren, segurtasun eta higienaren eta abarren eremuetan, enpresa adjudikaziodunak indarreko legeriak zehazten dituen lan-eginkizunak bete beharko ditu.

Hilean behin hauek aurkeztuko dizkio BBUPri:

- Lan-kontratazioa justifikatzeko txostena.
- RNT eta RLT (siglak gaztelaniaz) agiriak, erakunde ordaintzaileak egiaztatuta, ordainketaren ziurtagiriarekin batera.
- Bajan dauden eta horiek ordezkatzeko dituzten langileen zerrenda, enpresa adjudikaziodunak sinatuta eta zigilatuta eta beteta.

Grebak egiten direnean, kasuan, enpresa adjudikaziodunak ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak berma daitezen konponbidea eskaintzeko konpromisoa hartzen du. Halaber, greba amaitzen denean garbiketa berezien programak antolatuko ditu, eperik laburrenean ohiko garbitasun-egoera berreskuratzeko, baina BBUPk ez ditu ordainduko.

Horiek betetzen ez badira eta pleguan jasotakoak urratzen badira, BBUPk zehapenak ezartzeko ahal izango du edo, hala badagokio, kontratua suntsitu ahal izango du.

14. ADMINISTRAZIOAREN AHALAK: PARTEAK, IKUSKARITZAK ETA KALITATEA

14.1. Eguneroko parteak eta erreklamazio-prozedura

BBUPk parteak izango ditu eta honakoak agertuko dira: bitarteko materialak eta izandako gertaerak, hori guztia behar bezala informatizatua.

BBUPk, plegu honetan jasotako lanen emaitzen informazioa izateko, prozedura bat ezarriko du eta zentro guztiek aukera izango dute anomaliak edo gertatutako intzidentziak jakinarazteko.

Hala badagokio, aurrekoa baliagarria izango da adjudikaziodunari plegu honetan xedatutako zehapenak aplikatzeko.

Garbitu beharreko leku bakoitzean garbiketa-kontrol bat ezarriko da eta garbiketa-lanak kontrolatzeko txantiloak jarriko dira leku ikusgarri batean eta garbitzaileek txantilo horiek beteko dituzte lanak bukatzean.

14.2. Kalitatea kontrolatzea

BBUPren ahala da garbiketa-zerbitzuen gainean etengabe kalitatearen kontrola eta ikuskaritza gauzatzea, bai langile propioekin, bai xede horretarako kontrata daitezkeen bitartekoen bitartez.

Kontrolen helburua agiri honetan eskatutako baldintzekin bat etorri, prestazio egokia lortzea da. Bitan laburbildu daitezke:

- Garbiketa-zerbitzuaren egiazko kalitatea lortu eta mantentzea.
- Erabiltzaileari konfiantza azaltzea, eskaintako zerbitzuan desiragarria dena lortzen ari dela adierazteko.

Kalitate-araubide bat dago, UNE-EN-ISO-9001 izenekoa, eta bertan, sistemaren elementu batzuk definitzen dira eta funtzionamendurako oinarritzko irizpideak zehazten dira, adjudikaziodunak erabili beharko dituenak.

Era berean, kontratua betetzean ingurumen-kudeaketako praktika onak modu sistematikoan aplikatzen direla bermatzeko, SGA ziurtagiria dago garbiketa-zerbitzuarentzat (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokidea); edo lan-prozedura eta jarraibideak izan beharko ditu laneko osasuna eta ingurumena babesteko, gutxieneko baldintza gisa.

15. ZEHAPENAK

AKBPren klausulan xedatutakoaz gain, BBUPk ahala izango du zehapenak ezartzeko, baldin eta zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunak ondorengoren bat eginez gero:

- 1. motako urraketa
 - ✓ Urraketa-kasua: eskatutako zerbitzu bat adjudikaziodunak ez betetzea.
 - ✓ 1. motako urraketa zehapena: 50 eurora arteko zehapena lanpostua hutsik dagoen ordu bakoitzeko.
- Bestelako urraketa. Kasuak:
 - ✓ BBUPk jakinarazitako intzidentzia batean, gehienez ere ordubete hartu-agiririk ez egitea.
 - ✓ Zerbitzu-prestazioan ardurarik gabe jokatzeko eta BBUP kaltetzea.
 - ✓ Jarraipen-txostenik ez entregatzea.



- ✓ BBUPk kontratatutako zerbitzuaren inguruan eskatutako informazioa ez ematea edo berandu ematea. Eskatutako agiriak entregatzeko gehieneko epea bost egun naturalekoa izango da jakinarazpen formala egin eta gero.
 - ✓ Adjudikaziodunari idatziz egiten zaizkion jarraibideei jaramonik ez egitea, zuzen identifikatutako akatsak zuzentzeko.
 - ✓ Arrazoi justifikaturik gabe eta alde zurretik jakinarazi gabe, zerbitzua aldatzea.
-
- ✓ Urraketen zehapena: urraketa bakoitzeko 2.000 eurora arteko zehapena, larritasunaren arabera.

Zehapen horien zenbatekoak guztira ezingo du inolaz ere kontratuaren aurrekontuaren % 10 gainditu. Zenbateko hori gainditzen baldin bada, BBUPk ahala izango du kontratua suntsiarazteko eta behin betiko bermea konfiskatzeko.

Ezarri ahal izango diren zehapenak kontratazio-organoaren erabaki bidez jarriko dira, AKBPre baldintza orokorren klausuletan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

16. ERANSKINA. LAN-ARRISKUAK PREBENITZEKO PROZEDURA

ATARIKO EKINTZAK

Lanak hasi aurretik, hasierako bilera bat egingo da. Biler horretan, 31/95 Legearen 24. artikuluan eta 32 bis artikuluan eta 171/2004 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharreko lanak aztertuko dira, lan horietarako beharrezkoak diren koordinazio-bitartekoak esleitzeaz gain. Biler horretara, gutxienez, kontratuaren arduradunaz eta BBUPren teknikari arduradunaz gain, Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuko ordezkari eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkaria zein enpresa horretako Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria joango dira.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak hauek emango dizkio enpresa adjudikaziodunari:

- BBUPk Lan Baldintzen Arriskuen Ebaluazioa jarriko du enpresa kontratistaren esku. Ebaluazio horretan, enpresa kontratistako langileek izango dituzten arriskuak jasoko dira, BBUPren instalazioetan egiten duten lanaren ziozkoak, bai eta arrisku horiek saihesteko edo minimizatzeke aplikatu beharreko neurriak ere.

- Lan berezietan (laneko eremuagatik edo haren arriskugarritasun bereziagatik), BBUPk egokitzen jotzen duenean, enpresa kontratistak nahitaez bete beharreko lan-prozedurak eta -jarraibideak emango dizkio enpresari.
- BBUPk Larrialdi Plana emango dio enpresa kontratistari, edo, bestela, lana egiten duten instalazioetan larrialdiren bat gertatuz gero jarraitu beharreko irizpideak.

BBUPk honako dokumentu hauek aurkezteko eskatuko dio enpresa adjudikazioduneko ordezkariari:

KONTRATUA HASTEAN:

- Kontratuari atxikitako langileen zerrenda.
- Gizarte Segurantzako kotizazio-egoeraren ziurtagiria (hilero emango da, lanek irauten duten bitartean).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan egindako kotizazioaren justifikazioa, langileen zerrendan daudenak agertzen direnekoa. Bestela, Gizarte Segurantzako alta-agiriak (langile hasi berrien kasuan) edo, hala badagokio, autonomoen ordainagiria. Agiri horiek hilero eman beharko dira.
- Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren kopia eta primen ordainketan egunean dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Prebentzio-arloko antolaketa-mota (dokumentazio ofizialaren kopia gaineratu).
- Azpikontratazioaren erregistroa (hala badagokio).

Kontratua sinatzen denetik GEHIENEZ ERE HILABETEKO EPEAN, adjudikaziodunak Prebentzio Plana egingo du; honako hauek jasoko ditu hor:

1. ARRISKUEN EBALUAZIOA ETA PREBENTZIO-JARDUERAREN PLANGINTZA

Atal honetan honako hauek sartu behar dira:

- Plegu honen zerbitzuan jasotako lanpostu bakoitzaren arriskuen ebaluazioa. Lanpostu batzuen kasuan, adibidez kristalak, laborategiak edo industria-uneak garbitzen dituztenak, arriskuen ebaluazio espezifikoa beharko da. Ebaluazio horietan kontuan hartuko dira lanpostu horien arrisku bereziak eta ezarriko da beharrezkoa dela babes-ekipoak entregatzea, arrisku espezifikoetan prestatzea eta prebentzio-baliabideren bat behar ahalko luketen lanak identifikatzea.

Adibidez:

- Kristalak garbitzeko, BBUPk jakinaraziko du kristalak kanpotik garbitzeko maila ezberdinean erortzeko arriskua baldin badago eta beharrezkoa ote den prebentzio-neurriak ezartzea, adibidez, aldamioak edo PEMP plataformak erabiltzea. Enpresa adjudikaziodunak lan horietarako arriskuen ebaluazio espezifikoa entregatuko du eta bertan ezarriko dira langileek erabiliko dituzten prebentzio-neurriak, eta hala dagokionean, altueretan lan egiteko eta PEMP erabiltzeko prestakuntza-baldintzak, erorikoen aurka babesteko ekipoen eskuragarritasuna eta lan-arriskuen prebentzioan oinarritzko prestakuntza egina duen prebentzio-errekurtsorik ote dagoen jasoko da.
- Laborategiko lanak egiteko beharrezkoa izango da baita ere arriskuen ebaluazio espezifikoa egitea eta, gainera, langileek norbera babesteko ekipo egokiak izango dituzte (adibidez, lanerako oinetakoak, mahuka luzeko lanerako arropa, arrisku kimikoen aurkako segurtasun-eskularruak, produktu kimiko korrosiboen aurkako babes-mantala, maskara, etab.). BBUPk langileek laborategiak garbitzeko prestakuntza espezifikoa emango die, baita ere isuriak geratzeko eta diphoterine erabiltzeko neurriei buruzkoa.
- CCMak garbitzeko: lehorreko garbiketa-metodoak (xurgatu edo erraztu) lehenetsiko dira eta arrisku elektrikoen oinarritzko prestakuntza izan beharko dute langileek.
- Industrieguneetako garbiketa-lanetarako: beharrezkoa izango da, baita ere, arriskuen ebaluazio espezifikoa egitea. Bertan, altueran eta espazio itxietan egin ahal izango diren lanen arriskuak ezarriko dira eta lan horiek egiteko prestakuntza-baldintzak finkatuko dira eta NBEak entregatuko dira. Prebentzio-baliabideak bertan egotea behar duten lanak identifikatuko dira.

Entregatzeko bestelako dokumentazioa:

- Segurtasuneko edo Prebentzio Baliabideko arduraduna izendatzea.
- Produktu kimikoak erregistratzea (enpresa adjudikaziodunak eskuratzen dituenean).

2. OSASUNA ZAINTEZA

Kontratatistak honako hau aurkeztu beharko du:

- BBUPrako lan egingo duten langileen azken mediku azterketaren gaitasun-zerrendaren kopia. Zerrenda hori lanpostu bakoitzerako identifikatutako arriskuekin bat datorren protokolo bat aplikatuta egin beharko da.
- Kontratuan zehar aldizka mediku azterketak egiteko plana.
- Osasun-laguntzarako plana, behar izanez gero (osasun-zentroak, larrialdiak eta abar).

3. LANGILEEI TREBAKUNTZA ETA INFORMAZIOA EMATEA

Kontratatistak prestakuntza- eta prebentzio-informazioaren erregistroa (dokumentazio ofizialaren kopia erantsita, halakorik balego) entregatuko die langileei, baita ere kontratuan zehar identifikatu ahal izango diren prestakuntza-beharrak estaltzeko aurreikusi den prestakuntza-plana.

Arriskuen ebaluazioan identifikatutako arrisku espezifikoaren prestakuntza guztia jaso beharko da (arrisku kimikoak, altueran egiten diren lanak, arrisku elektrikoak, espazio itxiak...).

4. NORBERA BABESTEKO EKIPOAK

Enpresa kontratatistak norbera babesteko ekipamenduen entrega dokumentatu eta entrega bakoitzean langile bakoitzaren sinadura erregistratu beharko du. Norbera babesteko ekipoa identifikatutako arrisku-entzako beharrezkoak direnak izango dira. Kontuan izan beharko da balitekeela lanpostu batzuetan eskakizun bereziak izatea NBEen inguruan, zereginen arriskuen nolakotasunarengatik (altuerako babesak, arrisku kimikoak...) edo instalazioetan ezarritako baldintza bereziengatik (adibidez, Galindoko HUAn beharrezkoa da segurtasun-kaskoa, segurtasun-oinetakoak eta ikusgarritasun handiko arropa janztea).

5. LANEKO EKIPOAK

Enpresa kontratatistak bere jabetzako lan-ekipamenduak erabili behar baditu BBUPren instalazioetan, ekiporiek egokiak izan behar dute kontratatutako lanak egiteko, horiek erabiltzean langileen segurtasuna eta osasuna bermatze aldera.

Lan-ekipamenduek 1215/1997 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete behar dituzte (1215/1997 Errege Dekretua, Lan-ekipoak erabiltzeko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituenak). Kasu horietan, enpresa kontratatistak laneko ekipoen erregistroa entregatuko du (dagokien ekipoen dokumentazio ofizialaren kopia barne, horrelakorik egonez gero).



- Matrikulatutako lan-ekipoen erregistroa
- Lan mugikorren ekipoen erregistroa, automotoreak edo ez
- Altueran egiten diren behin-behineko lanetarako lan-ekipoen erregistroa
- Lan-ekipoen erregistroa, autopropulsatutako garabi mugikorrak

Halaber, kontratistaren ardura izango da bere langileei prestakuntza egokia ematea ekipoen erabilera seguruari buruz.

AZPIKONTRATATUZ GERO, AURREKO DOKUMENTAZIOA ESKATU BEHARKO ZAIE ZERBITZU-PRESTAZIOKO LANETAN ESKU HARTZEN DUTEN ENPRESA GUZTIEI.

- BBUPk aldiroko bilerak egingo ditu kontratatutako enpresen arduradunekin, kontratatutako prebentzio-teknikariekin, kontratuaren arduradunarekin eta BBUPren Prebentzio Zerbitzuarekin, eta aztertutako gaien akta egingo du, lanen ezaugarrien arabera.
- Istripurik gertatuz gero (baja eragiten duena edo bajarik gabekoa), enpresa kontratistak BEREHALA jakinaraziko dio kontratataren kontrol- eta jarraipen-arduradunari (kontratuaren arduradunari), eta hark, berriz, BBUPko Prebentzio Zerbitzuari.
- Enpresa kontratistak istripua ikertuko du eta ikerketa-txostenaren nahiz istripuaren agiri elektronikoaren kopia bidaliko dio kontratuaren arduradunari, eta beste kopia bat BBUPko Prebentzio Zerbitzuari, behar diren neurriak har ditzan. Enpresa kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek konpromisoa hartuko dute BBUPk ezarritako jokabide- eta jarduketa-arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea une oro errespetatzeko.